

Langostinoen moto bira

Irteera antolatu du
iganderako Langostino
Moto Kultur
Elkarteak ▶ 6



Harpidedunei banatua ▶ Osteguna ▶ 2006-04-27 ▶ IV. urtea ▶ 870. zenbakia ▶ www.tolosaldeko-hitza.info

Lagun artean eman diote azken agurra, Deban, Jokin Gorostidi tolosarrari

OMENA ▶ Herenegun hil zen ezker
abertzaleko militante historikoa;
igandean omenduko dute, Deban

OROITZAPENAK ▶ Gertutik ezagutu
zutenek haren «zintzotasuna eta
koherentzia» goraiatu dute ▶ 2-3



Jokin Gorostidi tolosarra,
artxiboko irudian. HITZA



HITZA

1.200 lagun elkartu ditu, Usabalen, sahararren aldeko bertso saioak

TOLOSA ▶ Sahara Bizi elkartekoak pozik
daude: «Hasierako helburuak bete dira, eta
jendea gustura geratu da emanaldiarekin» ▶ 3

ASTEASU-OREXA ▶

Santa Kruz jaiak, prest

Orexan bihar ekingo diete ospakizunei,
eta etzi Asteasuko Elizmendi auzoan ▶ 4

LEITZA ▶

Kateak kendu eta behin betiko itxitura egiten ari dira plazan

Lanak amaitutakoan, zati hori
onezkoentzat soilik izango da ▶ 7



Itxitura egiten, atzo. J. ASTIBIA

TOLOSALDEA-LEITZALDEA ▶

HITZA Txapelketaren pilotakadak ▶ 5

BAILARAKO ESKAINTZARIK ZABALENA

ORIXE Bigarren Hezkuntzako Institutua

BATXILERGOA
Teknologia
Natura eta Osasun Zientziak
Gizarte eta Giza Zientziak

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA
Natura inguruneko kirol
ekintzen gidaritza

943 65 13 87
E-mail: 012980aa@hezkuntza.net www.orixe.net

Aurrematrikula: Batxilergoa: apirilaren 25etik maiatzaren 6ra / Erdi mailako zikloa: Ekainaren 1etik 8ra

POLITIKA ▶

Lagun artean eman diote azken agurra Gorostidiri

Ezker abertzaleko militante historikoaren hil kapera 19:00ak arte egongo da gaur Debako udaletxean eta gero erraustuko dute; omenaldia igandean egingo diote



Herri Batasuneko buruzagiak HBren aldeko *Junta de Apoyo*-ren aurkezpenean. Ezker-eskuin: Jokin Gorostidi, Telesforo Monzon, Iñaki Aldekoa, Iñaki Urrestarazu, Txomin Ziluaga, Jose Antonio Urbiola. HITZA



EAJK eta HBk egindako bileretako bat. Argazkian ageri dena 1986ko ekainaren 23ko bilera da. Bertan, besteak beste, Jon Idigoras, Jokin Gorostidi, Iñaki Esnaola edo Xabier Arzalluz ageri dira. HITZA

NOELIA LATABURU

Herenegun zendu zen Jokin Gorostidi ezker abertzaleko militante historikoari azken agurra egiteko hil kapera gaur, 19:00ak arte, egongo da Debako udaletxean (bertan bizi baitzen azken urteetan tolosarra). Asko eta asko izan dira, herri-tarrak nahiz militantzian kide izan dituenak, hango batzar aretoraino joan direnak. 19:00etan erraustu egingo dute eta haren omenezko ekitaldiak, berriz, igandean burutuko dituzte, Deban bertan.

Gorostidi iragan ostiralaz geroztik koma sakonean zegoen. Itziar Aizpurua emaztearekin trenean zihoala izan zuen bihotzekoa, miokardio akutu baten ondorioz. Donostiako ospitalean egon zen, arnasteko aparatu bati lotuta. *18/98 auzian* epaituen artean zegoen Tolosakoa, *Xaki* atalean; aste honetan zegoen deklaratzeko eta, hain zuzen, bere osasun egoera larriagatik eten egin zuten epaiketa, joan zen astelehenean. Berarekin egotea «ohore» handia izan dela esan zuten, atzokoan. *18/98 auziko* inputatuek.

40 urte ezker abertzaleari

1944an jaio zen Gorostidi, Tolosan. 13 urterekin hasi zen lanean Emua metalgintza lantegian, 1962an langile ordezkaritza hautatu zuten, Tolosaldeko metalgintza alorreko arduradun izan zen gero, eta CCOOren sorreran ere hartu zuen parte. Sindikalismoan zebilen bitartean hasi zen ETaren lehen ekintzetan parte hartzen. Bere-

hala buru-belarri sartu zen ETaren egitura, V asanbladaren bigarren zatian delegatu gisa parte hartu zuenetik, 1967an. Zutik aldizkaria banatzen, ETaren zuzendaritzan bidaltako propaganda zabaltzen aritu zen garai hartan, erakunde armatuko liberatuekin harremanean, lantegian lanean jarraitzen zuen bitartean.

1967ko azaroan sasian sartu zen, atxilotzekotan zutenean Poliziari ihes egitea lortu zutenean. Liberatu hasi zen orduan, Gipuzkoan, Txabi Etxebarrietaekin batera. Elkarrekin bizi izan ziren hainbat hilabetez. Garai honetan, gero-ora kontaktu zuten, ETaren lau fronteak koordinatzeko lanean eta azpiegitura antolatzen ibiltzeaz gain, hainbat lapurretatan ere hartu zuen parte, dirua biltzeko. 1969ko martxoaren 8an atxilotu zuten Deban. Burgo Prozesuan heriotzara zigortu zituzten seietako bat izan zen. Heriotza zigorraren ordezkartzela zigorra bete behar izan zuen azkenean, ordea, gainerako zigortuekin batera. Hainbat kartzela pasatu zituen giltzapean egindako zortzi urte eta erdian: Martutene, Burgos, Soria, Cartagena, Caceres eta Carabanchel. Denbora luzeena Cartagenan egin zuen, bakar-tuta, gainera, preso politiko bakarra bera zela. 1977ko maiatzean utzi zuen espetxea, baina ez aske gelditzeko, Bruselara erbesteratua joateko baizik, Burgosen zigortutako beste hainbat presorekin batera. Bi hilabete baino lehenago, erbesteratze agindua hautsi eta itzuli egin ziren: Durangon egin zuten agerraldia, Askatasunaren aldeko Ibilaldiaren baitan.

Tolosan zinegotzi, 1979an

Herri Batasunaren sortzaileetakoa izan zen, 1978an, independente gisa. Eta Mahai Nazionaleko kidea izan zen hasieratik, 1992ra arte. Urte asko egin zituen parlamentari ere, Eusko Legebiltzarrean, 1980tik 1994ra. 1979an Tolosako zinegotzi ere izan zen.

Lehen hauteskunde kanpai-

- ▶ hilberriak
- ▶ urteurrenak
- ▶ eskertzak

Gipuzkoan
50.000
etxetara

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira
Telf.: 943 65 56 95
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

HITZA guztietan prezio beragatik

naren atarian, hain zuzen ere, Miarrizten (Lapurdi) Txomin Iturbe eta Eugenio Etxebeste ETako ustezko buruzagiekin zegoela, tirokatu eta atxilotu egin zituzten hirua. Kanpainaren erdian askatu zuten Gorostidi hautagaia. Kartzelan beste bi egonaldi labur ere egin zituen geroztik, estradizioen aurkako itxialdi batean parte hartzeagatik aurrena eta 1981ean Espainiako errege-erreginen etorreran Gernikako Juntetxean izandako gertaerengatik epaitua izan ondoren, 1993an. Politikagintzaren lehen lerroa utzi zuenetik ere arazoak izaten jarraitu du auzitegietan. 2000ko otsailaren

bera kabuz aurkeztu zen Espainiako Auzitegi Nasionalean Baltasar Garzon epailearen aurrera. Xaki-ren eta ezker abertzaleko nazioarteko sarearen aurkako operazioan inputatu zuelako. HBko nazioarteko alorrean lanean ibilia zen Gorostidi, 1993an Cabo Verden legionela harrapatuta larri gaixotu zen arte. 30.000 euroko bermea ordainduta utzi zuen aske. Fiskalak 15 urteko kartzela zigorra eskatu zuen Tolosakoarentzat. 2003ko abenduan atxilotu zuten azkeneko, Garzonek aginduta berriro, ETaren iraultza zerga kobratzen bitartekari ibiltzea egotzita. 18.000 euro ordainduta utzi zuen aske.

«Beti koherentea»

Gertutik ezagutu zutenek gizon zintzo eta «ideiekin koherente» bezala definitu dute

N. LATABURU

«Bere bizitza guztian bere ideien aldeko koherentzia mantendu zuen». Ezagutzen zutenek ezaugarri hori nabarmendu nahi izan dute, Jokin Gorostidi tolosarra oroitzeko garaian. HITZAK ezker abertzaleko militante historikoa gertuagotik ezagutu zutenen hitzak bildu ditu.

INAXIO AGIRRE
EZKER ABERTZALEA

«Askatasunaren aldeko langile amorratua zen»



«Harreman handiak izan ditut urte askoan. Euskal Herriaren askatasunaren aldeko langile amorratua eta abertzalea izan da, bere ideien aldeko koherentzia osoz mantendu dena. Independentziaren eta sozialismoaren alde egin du lan bizitza osoan zehar».

ANTTON KARRERA
EB

«Pentsatzen zuenarekin erabat koherentea zen»



«Burgoseko Prozesuan elkarrekin epaitu gintuzten. Bere ideiekin oso koherentea izan da bizitza guztian, hain alde guztia emanez; hori eskertzekoa da. Nahiz eta azken urteetan politikan ez koinziditu oso erlazio estua nuen».

JOSE MARI OLARRA
EZKER ABERTZALEA

«Herri honekiko entrega osoa izan du»



«12 urte egin nituen harekin Mahai Nasionalean eta guztiaren gainetik laguna izan dut. Urte askotan marko berdinean jardun dugu lanean eta oso sintonia ona genuen politikan. Benetako abertzalea zen, herri honekiko entrega osoa zuen benetako abertzalea».

JESUS MARI AGIRRE
EZKER ABERTZALEA

«Euskal gudari baten irudia da Jokin»

«Euskal gudari baten irudia da, gure garaiko gazteentzat erreferentzia zen eta nire kasuan ere eredu bat. Euskal Herriko independentzian sinesten zuen, abertzale koherentea izan da azken unera arte».

JOSETXO SASIETA
EZKER ABERTZALEA

«Euskal Herriagatik eman du bizia»

«Alpinon ezagutu nuen eta 1979an Tolosan zinegotzi izan ginen biak. Jokin, gudari, zioten Deban. Hala zen: pertsona berezia, antiheroia, ezinbestekoa ezker abertzalearen lan egiteko eran. Euskal Herriagatik eman du bizia, etekin pertsonala axola gabe».

ELKARTASUNA ▶

1.200 pertsona bildu ziren igandean, sahararrekiko elkartasun saiora

Sahara Bizi Elkarteak adierazi dutenez, «hasierako helburuak bete dira, eta jendea gustura geratu da bertso emanaldiarekin»



Saioaren amaieran, agurra Saharako jantzi tipikoak eta euskal txapela soinean zutela egin zuten. HITZA

E. EZEIZA

Irriak eta malkoak uztartzen jakin izan zuten igandean, Sahararen alde egindako bertso saioan. Aurkezpenean, Tolosaldea Sahararekin elkarteak zuzendari Ana Troperok adierazi zuenez, elkartasun saio honekin, «Saharak azken 30 urteetan bizi duen egoera larria salatzea eta, bide batez, laguntzea» zuten helburu. Taula gainean, momentuko bertsolari onenetakoak bildu ziren: Andoni Egaña, Igor Elortza, Sustrai Colina, Unai Iturriaga, Amets Arzallus, Maialen Lujanbio, Iruran bizi den Aitor Mendiluze eta Jon Maiaren orde, Jexux Mari Irazu larrauldarra. Elkartasunarekin estuki lotutako bertso emanaldian, jasotako dirua Tindufeko erre-fuxiatuen kanpamenduetara bidaliko dute.

Ekitaldia 18:00etan hasi zen, eta sarreraren Etxerat-ek aurrerlaldia egin zuen, bertan zeudenen txaloak jasoz. Ondoren, Mohamed Salem Hach Embarek eta Gurutze Irizar 2005eko Euskal Kooperantea Sariaren irabazlearen alaba Garazik hitz egin zuen. Hau, hasanieraz eta euskaraz mintzatu zen, segidan, irrintzi bat bota zuen, bertsolarietara sarrera emateko.

Bertso saiotako ezinbesteko osagai dira barre algarak, eta hemen ere, ez ziren falta izan. Esaterako, gai-jartzaileak ipinitako lanen artean, puntutka, -i bokala kenduta abestua-

DIRU LAGUNTZAK ▶

Kontu korronte zenbaki hauetan aman ahal izango dira diru laguntzak:

Euskadiko Kutxa.
3035.0012.7401.2008.6016.
(Euskal Autonomia Erkidegorako).
Kutxa.
2101.0067.2200.1118.0866.
La Caixa.
2100.1758.6802.0007.7750.

razi zieten. Baina une hunkigarri asko ere bizi ziren emanaldian. Horieta bat Andoni Egañak saharar haur batekin biziutako erlazioaz abestean sortu zen. Ekitaldian barna, bertsolari bakoitzari eskerrak emateko txapela bana oparitu zitzaion. Eta honekin batera, Saharar mutilen jantzi tipikoak den Darraa gizonetakoentzat, eta neskena den Melfa, Lujanbioarentzat. Ondoren, Gurutze Irizar, 2005eko Euskal Kooperantea Sariaren irabazleak eskerrak eman zizkien bildutako koei. «Sahararrek eusten dioten bitartean, guk ere eusten lagunduko diegu», adierazi zuen.

Amaitzeko, bertsolari bakoitzak saharar soinekoak eta euskal txapela jantzita, agurra abestu zuten. Mementu oso polita izan zen, eta beste behin, jendearen bihotza ukitzea lortu zuten protagonistek.

Emaizten balorazioa

Sahara Bizi Elkarteak adierazi dutenez, helburuak bete dira, «jendea gustura geratu zen, eta bertso saio ona egin zuten, hunkitzeko, nahiz barre egiteko moduko saioa burutu zuten».

Diru irabaziei dagokionean, sarreraren salmentarekin 10.840 euro eskuratu zituzten. Hala ere, honi, kamiseta, lepoko... eta abarren salmentekin irabazitako 300 euroak gehitu behar zaizkio. Bestetik, antolatzailek jakinarazi dutenez, «lortutako diru zati bat megafonia eta karteletako gastuak ordaintzeko erabiliko da».

Antolatzailek bereziki esker-rrak eman nahi dizkiete Tolosaldeko herritarrei, Tolosako Udalarri, Lanku Bertso Zerbitzuak taldeari eta EITBri, maiztuzaren 1ean, Euskal Telebistako lehen katean eskainiko baitute saio osoa. Bestetik, aipamen bat «Udaleko eta Kiroldegiko langileei, montaketan eta aulkiak ematen egindako lanagatik, eta dena eskura jartzeagatik. Baita sarrerak salmentan lagundu zuten dena, taberna... Eta egunean bertan izandako hainbat boluntariorri, antolatzen lagundu zutelako. Bestetik, Gure Txokoa Elkarteari, bertso saioaren aurreko bazkaria antontzeagatik. Eta, azkenik, taula gainean aritu ziren Unai Elizasu gai-jartzaileari eta zortzi bertsolarietara».

OREXA-ASTEASU ▶ SANTA KRUZ JAIK



Simonen jaitsierak —ezkerrean— jende ugari erakarriko du Elizmendi auzora; Orexan, ia bezala, aurten ere herritarren arteko lehiak egiteko asmoa dute. I. GARCIA / I. TERRADILLOS

Oilarra eta Simon noiz jaitsiko zain

Orexan, bihar, eta Asteasuko Elizmendi auzoan, etzi, ekingo diete Santa Kruz jaien ospakizunei

IMANOL GARCIA

Santa Kruz eguna maiatzaren 3an da, datorren asteazkenean, baina Orexan eta Asteasuko Elizmendi auzoan asteburuan ospatuko dituzte ekitaldi nagusiak. Orexan bihar hasiko Elizmendin, berri, etzi ekingo diete jaiak Simonen jaitsierarekin.

Orexan zenbait aldaketa egin dituzte aurten jaietarako. Gazte jendearan jaietarako joerak aldatu egin dira, festa antolatzen aritzen den Kultura Batzordeko kide Jokin Sorozabalek azaldu duenez: «Erromeriak ekartzen genituen larunbat gauerako, baina gero eta gazte gutxiagok egiten zuten dantza eta tabernatan egoten ziren. Horrela, ia talde ezaguna ekarri genuen, herriaren aurrekontuaren arabera, baina ez zen normalean egoten direnak baino askoz jende gehiago etorri».

Egoera hori ikusita aurten ostiralean egin ohi zen herri afaria larunbaterako jarri dute.

Egun horretan, afaria eta gero, jendea giroan sartuta, DJ Bullen disko festa eta kalejira doinuak izango dituzte gazteek. Eta ostiralean, afari-merienda egin eta gero, gazteei ere zuzenduta eta giroa sortzeko, Orexako I. Futbol Torneoa. «Ez da futboleko partidu normala izango. Zerbait berezia egingo dugu, bi pertsona sokaz lotuta jolastea, adibidez», dio Sorozabalek.

Larunbat arratsaldean, ohi bezala, haurrentzako ekitaldiak izango dira. Igandean, ahaideak bisitatzerako kanpotik joaten direnak kontuan hartuta, parte hartzeko baino ikusi eta entzuteko ekitaldiak antolatu dituzte. Santa Kruz eguna herritarrentzat izaten da, eta aurten ere ekitaldien artean orexarren arteko apustuak prestatu nahi dituzte.

Zezensuzko berria

Elizmendiko jaietan azken urteetako antzeko egitaraua izango dute. Haurrek, ohi bezala, protagonismo handia izango

EGITARAUA ▶

OREXA

Bihar

20:00. Oilarren jaitsiera. Ondoren, poteo herrikoia Toloxa eta Bull dultzaineroekin.
21:30. Afari merienda.
23:00. Orexako I. Futbol Torneoa.

Etzi

16:30. *Giriguai* ikuskizuna haurrentzat, Zirko Tipiaren eskutik. Ondoren, merienda.
21:00. Herri afaria. Ondoren, erromeria: Juan Mari Beltran eta Astiazaran anaiekin. Gero, disko festa D.J. Bullekin, barabaxuri-zopa eta kalejira Gari eta Iñaki trikitalariekin.

Apirilak 30, igandea

18:00. Pilota jaialdia: xarean Irurako Ametsa pilota elkarte

eta joko garbian Villabonako Behar-Zana pilota elkarte.
20:00. Sagardo probaketa.
21:00. Bertsolariak: Aitor Mendiluze eta Jexux Mari Irazu.
22:00. Disko festa D.J. Bullekin.

Maiatzak 3, Santakutz eguna

13:00. Pilota partida: Odei Iturriotz herriko selekzioaren kontra eta apustua herritarren artean.
14:00. Pintxo lehiaketa eta dastaketa.
19:00. Oilarren igoera.

ASTEASU, ELIZMENDI AUZOAN

Etzi
11:00. Duatloia. Probak: mendiko txirindularitza eta krosa.

15:30. Mus txapelketa herrikoia.
16:00. Txupinazioa eta Simonen jaitsiera. Ondoren, haur jolasak eta buruhandiak.
21:00. Herri afaria Erretore Ebean.
23:00. Erromeria Ansozregi eta Larrañaga trikitalariekin. Goizaldera, zezensuzkoa.

Apirilak 30, igandea

11:15. Meza Santa Kruz ermitan. Ondoren, hamaiketako eta toka txapelketa. Laja eta bere taldearen emanaldia.
18:00. Herri kirolak eta sokamuturra (zezen txikiak eta poneyak). Gero Laja eta Taldea.
22:00. Simonen igoera.
23:00. Laja eta Taldea, goizaldera arte.

dute. Haietaz antolatutako duatloiarekin hasiko dira, berez, ekitaldiak etzi. Gero, arratsaldean jaitsiko da Simon elizako kanpandorre ondoko te-

rrazatik. Jaietako ekitaldi berezienetakoa bihurtu da.

Berritasuna zezensuzkoan izango da. Ekitaldia bera ez da aldatuko, baina bai zezena

bera. Asteasuko zerrategian aurten egindakoa estreinatuko baitute larunbat gauean. Egun horretako herri afariak ere la-gun ugari bilduko ditu.

hitza
argazki
lehiaketa

bidali argazkiak

ARGAZKIAK NORA BIDALI

- ▶ P. elektronikoa: tolosaldeko@tolosaldeko-hitza.info
- ▶ Postaz: Argazki lehiaketa. Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza. Araba etorb 5, atzea • 20400 TOLOSA

Nahi baduzu, argazkiak Tolosako edo Leitzako HITZaren egoitzetara ekarri

OINARRIAK: www.tolosaldeko-hitza.info

Sari nagusia

BIDAIA paregabe bat zure neurria

2 laguntzat 5 eguneko egonaldia, mantenu erdiarekin Asturiasen edo Costa Bravan

Bidaia Agentzia bidaide

Erniobea, 6-behea • 20150 Villabona
Tel.: 943 692 693
bidaide@gruposercom.com

ZOKKETA APARTAK

PARTE-HARTZAILE ETA BOTOEMAILE guztien artean HITZaren motxila eta mendiko gerriko poltsa zozkatuko dira

HITZA

PILOTA ▶

HITZA gure frontoietan, eta pilota eskuetan

Mailaka sailkaturik frontoi zehaztuetan jokatzeko dute, astegun ia guztietan



lazio txapelketan benjaminen ere parte hartu zuten. JOXEMI SAIZAR

NEREA URBIZU

HITZA Pilota Txapelketa hasia da jadanik. Maila ezberdinetako pilotariak ari dira jokatzeko, Euskal Herriko hainbat pilota eskolaketakoak, gainera.

Asteazkenetan, 19:00etan, Tolosako Beotibarren jubenilak ariko dira. Asteazkenetan, 19:00etan, kadeteak Bidegoianen ikusteko aukera izanen da. Ostegunetan berriz ere Beotibarren promesa mailakoak egonen dira. Ostiraletan Adunako pilotalekuan kartzotakoak aritzen dira jokoan, 19:00etatik aurrera. Ordu berean Albizturren umeek jokatzeko dute, eta larunbatean Alegiako pilotalekuan, 17:00etan, txikiak. Goizean, 10:00etan, alegia, Beotibarren, senior promesak aritzen dira.

Aste honetan batzuk jokatu dituzte, baina hauek dira oraindik ere ikus daitezkeenak: gaur, esaterako, 22 urte azpiko Zelaia-Ugartemendia eta Aranzabe-Mugika ariko dira Beotibarren, esan bezala, 19:30ean. Zazpi-Iturri eta Aurrera-Saiazeko pilotariak dira hauek guztiak: beraz, derbia izanen da. Bigarren partidaren jubenil mailako Andreu-Txurruka eta Ezkurdia-Bergera izanen dira.

Larunbatean, aldiz, 22 urte

azpiko partidarekin hasiko dira Beotibarren, 10:00etan: Iribar-Iribar eta Etxebeste-Etxegarai, ondoren nagusi mailako Zufiaurre-Azanza eta Olaetxea-Jauregi, eta azken partida Garzandia-Huarte bikotea Onsalo-Erasoren aurka. Eskualdeko pilotariak azken bi partida hauetan, hortaz.

Gazteak eta txikiak ere bai

Hilaren 28an infantilak Adunan ariko dira. Orotara, 4 partida jokatu dituzte. Horietako hiruretan eskualdekoek parte hartuko dute. Lehenengoan Urbietza-Zinkunegi, bigarrenen Landa-Galarraga, eta laugarrenen Gorostidi-Goitia eta Nazabal-Karrera (Amezketakoak eta Villabonakoak).

Alebinen mailan Ansa-Garin alkizarrak, Balardi-Orbegozo, Aurrera Saiazeko bikotea eta Otaño-Urkola bikote billabonatarra ariko dira, Albizturren.

Benjaminak ere ariko dira. Honetan ere hiru partida interesgarri ikus daitezke Alegian. Larunbatean izanen dira, eta lehenengoan Iraola-Otaegi alkizarrak ariko dira. Bigarren partidaren Aurrera-Saiazeko A. Urdanpileta eta Senperena norgehiagokan, eta azkenekoan Zazpi-Iturriko Sagastume-Altuna, Villabonako Alkorta-Maiz arerio izanik.

ALTZO ▶

Soinu ezagunak eta arrotzak uztarturik

Altzoko elizan eskaini zuten kontzertua. Bertan, Donato Goienetxe perkusio irakasle eta katedraduna Donostiako kontserbatorioan, eta Xabier Arakama irakasle eta kontzertu emalea trikitixarekin, perkusio eta trikitixa kontzertua eman zuten. Maila altuko doinuak sortu eta eskaini zituzten, eta jendearen harritura ere eragin zuten, trikitixa eta munduko hainbat perkusio tresna fusionatuz. Jo aurretik azalpenak ere ematen aritu ziren, perkusio tresna arrotzen izenak emanez.



Goienetxe marinba joz eta Arakama, emanaldiko une batean. n. u.

IKAZTEGIETA ▶

Ezker abertzaleak deitutako batzarra, gaur

Ikaztegieta herrian ezker abertzaleak batzarra egingo du gaur, iluntzean, 21:00etan, hain zuzen ere. Udaletxean dira biltzekoak. Batzarra irekia da, eta bertan informazioa emateaz gain, intereseko hainbat gai eta proposamen jorratuko dituzte.

ULERTZEKO Garai Berria

berria²

BERASTEGI ▶

Helduentzako
eskolak,
astelehenetan

Pasa den urtean bezala, urten ere helduentzako eskolak antolatu dituzte. Klaseak astelehenetan, 19:30etik 21:30era, KZgunean emango dituzte, eta jorratuko dituzten gaiak euskara, matematika eta test psikoteknikoak izango dira, besteak beste. Izena eman nahi duenak KZgunean azaldu beharko du, maiatzaren 8an.

VILLABONA ▶

'Urtemuga festa'
filma, gaur,
Gurea aretoan

Euskara Zine Aretoetara programaren baitan, Udaleko Euskara eta Hezkuntza batzordeak antolatuta, gaur 10:30ean Tinkoren eskutik *Urtemuga festa* pelikula eskainiko diete Haur Hezkuntzako ikasleei, Gurea zinema aretoan.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112))
Osasuna.

- ▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
 - ▶ **Anoeta-Alkiza-Hernialde.**
 - Medikua: 65 23 39
 - ▶ **Asteasu.** Medikua: 692423
 - ▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003
 - ▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361
 - ▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134
 - ▶ **Ibarraldea.** Osasun etxea: 672411
 - ▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329
 - ▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720
 - ▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800
 - ▶ **Orendain.** Medikua: 655595
 - ▶ **Orexa.** Medikua: 682228
 - ▶ **Tolosa.**
 - ▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111
 - ▶ San Esteban: 006800
 - ▶ Gernikako arbola: 006900
 - ▶ Amaroško dispen.: 672637
 - ▶ Asunzion Klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)
 - ▶ DYA: 672536
 - ▶ Gurutze Gorria: 674888
 - ▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970
 - ▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerb: 693930
- Garraioak.**
- ▶ Renfe: 902 24 02 02
 - ▶ Donostiako autobusa: 361740
 - ▶ Tolosaldea bus: 650621
 - ▶ Leitzaran autob.: 948 221015
 - ▶ Taxia: 670420
 - ▶ Taxia (Leitza): 608 873016
- Besterik.**
- ▶ Ertzaintza: 538820
 - ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
 - ▶ Tolargi: 650016
 - ▶ Iurrarmendi egoitza: 670325
 - ▶ Tolosa gasa: 675320

IBARRA ▶ GIZARTEA

Arau subsidiarioen tramitazioa
geldiarazteko sinadura bilketa

Olinpiada Txikiaren ostean jarriko du abian ekimena Arau Subsidiarioen Aurkako Plataformak; tramitazioan urratsik emateko baldintzarik ez dagoela uste dute

IÑIGO TERRADILLOS

Ibarrako arau subsidiarioen aurkako Plataformak «arauak aurrerantz doazela kontuan hartuta», Udal Planeamenduko arau subsidiarioen tramitazioa geldiarazteko helburuz sinadura bilketa egiteko asmoa du, asteburu honetan, Olinpiada Txikiaren amaieran.

Plataformak adierazi duenaren arabera, «urak nahasiak dabilta Udalaren inguruan; Udal gobernuko ordezkariak elkarririk ari dira, herriaren alde nor edo nor ari den, eta bakoitzaren onerako nor edo nor ari den elkarririk leporatu, eta honen guztiaren atzean arau berrien tramitazioa dago». Hala, egoera «tamalga-

rri» honen aurrean, udal planeamenduko arau subsidiarioen tramitazioa geldiarazi asmoz sinadura bilketa jarriko du abian Herri Plataformak, egun arau hauen tramitazioan Udalak aurrerako urratsik emateko baldintzarik ez dagoela uste baitu.

Arau subsidiarioen aurkako plataformak esan duenez, «arau berriak jasotzen dituen aurre-dokumentuari egindako hogeita hamahiru iradokizunei esker, aldaketa sakonak eman omen dira hasierako asmoetatik alderatz; horrela igorri zaitgu Udaletik, behintzat». Halaber, «egin diren aldaketa horiek» sakonak diren ala ez baiezatzeko ez dutela informazio nahikorik azaldu dute pla-

taformako kideek, «baina argi daukaguna zera da, erren jaiotakoak erren jarraitzen duela, hau da, Udalak jendearen parte-hartzea ziurtatzeko fororik edo eztabaida mahaiarik ez duela sortu, eta hori ezin dugula onartu, inondik inora», diote.

Herriko taldeekin bilerak

Herriko talde eta eragile desberdinekin bilera «asko eta anitzak» egin ditu Herri Plataformak. Hauspoa, Xepla, Bizi-Nahi, Dendariak, Eneko Aritza eta Txiribiturekin, besteak beste. Bilera emankorrak eta parte-hartze handikoak izan direla adierazi dute, eta bertatik ideia argi bat atera ahal izan dutela: «Herria nolako izango den di-

PARTE-HARTZEA

«Udalak herritarren parte-hartzea bermatuko duen prozesu demokratikoa jarri behar du abian»

seinuan parte hartu nahi dugu herritarrok, eta diseinuan parte hartu ondoren, azken erabakiaren jabe izan nahi dugu». Bestalde, Udalak herritarren parte-hartzea bermatuko duen prozesu demokratiko eta gardena abian jarri, eta behar diren foro edo eztabaida mahaiak sortu behar dituela, eta bitartean tramitazioa gelditu, gehitu du plataformak.

IBARRA ▶ GIZARTEA

I. TERRADILLOS

Ibarrako Langostino Kultur elkarteak igande honetarako, hilaren 30erako, bira antolatu du. 180 kilometro ingurukoa izango da, eta 6 euro ordaindu beharko dira izena emateko. Motortean egin beharreko biraz gain, hamaiketako ere hartuko dute egun horretan biltzen direnek. Parte hartu nahi duenak alde aurretik abisatu beharko du ondorengo telefono zenbakietan: 636 40 31 70 (Ander), 670 41 79 15 (Moski) edota 658 75 15 91 (Tximas).

Aurtengo egitararen baitan antolaturiko lehen ekitaldia pasa den martxoaren 26an burutu zuten. Egun horretan, motortekin bira egin zuten Ibarra-ko plazatik abiatuta 40 lagun inguruk. «Eguraldi tristea zela eta, antolatzaileak beldur ginen jendea atzeratuko ote zen, baino ez zen horrela gertatu eta giro onean hasi genuen gure aurtengo lehenengo bira», azaldu dute. Antza bira horretan hitz egindakoa baino kilometro gehiago egin zituzten «despiste txiki» batengatik, eta hori dela-eta barkamena eskatu nahi diete parte hartu zuten guztiari. Bira Ibarratik abiatu zen, eta Altsasu, Urbasa, Lizarra eta Opakua igaro zituzten San Romanen gosald

Langostino Moto Kultur Elkarteak
bira antolatu du igande honetan

180 kilometro ingurukoa izango da, eta 6 euro ordaindu beharko dira; maiatzaren 28an eta ekainaren 25ean ere antolatu dituzte birak



Martxoaren 26an egin zuten aurtengo lehen bira. Irudian, bertan parte hartu zuten motozaleak. NEKA

aurretik. Gosalduta eta gero «umore onean» itzulerari ekin zioten. Antolatzaileek azaldu dutenez, «oso kontent geratu ginen eta parte-hartzaile guztiak eskerrak eman nahi dizkiegu».

Igandeko ekitaldiaz gain, beste bi gehiago ere egingo di-

tuzte, maiatzaren 28an eta ekainaren 25ean, hain zuzen. Hauek ere 180 kilometro ingurukoa izango dira, eta hamaiketako barne 6 euro ordaindu beharko dira parte hartzeko.

Bestalde, IV. Langostino Moto Festa egingo dute aurten Ibarra uztailearen 1ean eta

Zan, Langostino elkarteak antolatuta. Elkartetik adierazi dute antolaketetan parte hartu nahi duenak edota Langostino Moto Kultur Elkarteak kide izan nahi duenak 636 40 31 70, 670 41 79 15 edo 658 75 15 91 telefono zenbakietara hots egin beharko duela.

ORENDAIN ▶

Amurizarekin, Lazkao Txiki ekarriko dute gogora 30ean

Herri bazkariaren ondoren, hari buruzko emanaldia egingen dute Eltxo elkartearen

J. ASTIBIA

Lazkao Txiki bertsolaria ekarriko dute gogora igandean Orendainen, egitekoa duten bazkariaren ondoren.

Hilaren 30ean, igandean, beraz, herri bazkaria dute Orendainen, Eltxo elkartearen izaneren ere. Bertan bilduko diren bazkaldarrek, otordu bikaina egin ondoren, bertso-tarako giro egokia izanen dute.

Honetakoan, Joxe Migel Iztueta zenaz, Lazkao Txikiz ariko dira, *Lazkao Txiki bat-bateko sorgina* emanaldia entzuteko aukera izanen baitute Eltxon bildutakoek, kasu honetan, erakustaldiaren ardurak Xabier Amurizaren eskutik etorritik. Halaxe eman du jakitera Bertsozale Elkartek.

«Ehunen bat bertsoak antologia hautatu honetan, Lazkao Txikiren estiloa eta jentilatasuna biltzen da, bere gaiak, bere grazia, bere estetika hain pertsonala erakusten duten bertsoak dira», azaldu dio HITZARI.

LEITZA ▶

Sagastibeltzak Erreka Pilota Txapelketako partida du gaur

J. ASTIBIA

Gaur arratsaldean bertan jokatuko dute Erreka Pilota Txapelketako final-laurdenetako saioa Doneztebeko pilotalekuan, 19:30ean hasita. Hantxe izanen da Artiz Sagastibeltza leitzarra.

Sagastibeltzak jubencil mailan jokatzeko du, eta Larri-naga izan du bikote orain arte, baina orain min hartuta dagoenez, ez da ezaguna bere kidea zein izanen duen, final-laurdenetako txartelaren bilakoan. Areriko, Eskudero-Galarraga, goizuetarra eta tolosarra, izanen dituzte.

LEITZA ▶ HIRIGINTZA

Plazan kateak kendu eta behin betiko itxitura egiten ari dira

Eskuz jarri-kendu daitezkeen pibotekin itxiko dute; «kotxea behar-beharrezko denean» erabiltzeko deia egin du Udalak

ERREDAKZIOA

Herriko plazan «behin betiko itxitura» egiten ari da Udala, egun hauetan: Korte aldeko plazako koskatik armarrira, zeharka, eta armarritik udaletxe-ko paretara, zuzen, burdinur-tuzko piboteak jartzeko lanetan ari dira udal langileak. Horrela, plazako zati hori oinezkoentzat bakarria izanen da aurrerantzean.

Orain arte aldi baterako jarritako zeuden katea eta hesiak, plazan jostetan ibiltzen diren umeentzat lekua izan eta kotxeen aparkalekua mugatzeko. Lan hauekin, horiek kendu eta beharren arioren eskuz jarri eta kendu daitezkeen itxitura egiten dihardute.



Atzo eguerdian, plazako itxitura egiten ari ziren langileak. J. A.

Gauzak horrela, udaletik igorri duten oharrean, itxitura horrekin «plazan aparkatzeko toki gutxiago» izanen dela ohar-tarazi dute, eta «kotxea behar-beharrezkoa denean bakarrik erabili beharko» dela jakinarazi.

ANOETA ▶ AHT



AHTaren akordioaren aurkako elkarretaratzea

I. Garcia ▶ Espainiako Gobernuak eta Eusko Jaurlaritzak AHTri buruz sinatu berri duten akordioaren kontra eskualdean deitutako lehen elkarretaratzea burutu zen, atzo, Anoetan. Bertara bildutakoek herriko alkatearen jarrera salatu zuten: «Fidel Azpirozek herritarroji jarrera arduragabea erakutsi digu. Azken hilabetearen egindako eskae-

raren erantzunik ez dugu jaso, eta 300 herritarren sinadurei jaramonik ez die egin». Elkarretaratzearen deitzaileek batzar batetara deitu dituzte herritarrak. Udaletxe-ko pleno aretoan egingo dute datorren asteartean, maiatzaren 2an, 19:00ean, eta bertan AHT proiektuaren aurrean zer egin daitezkeen eztabaidatuko dute. I. GARCIA

iragarki laburrak ▶

| | | |
|------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| GALDUTAKOAK | zenbakira. | ofiziala. 615 74 86 61. |
| Betaurrekoak. Eguzkitako betaurreko beltzak galdu ditut | LANA | Etxeolanetarako. Pertsona bat behar da ebekolanak egiteko. Deitu 14:00etatik 21:00etara. Deitu 669 21 33 37ra. |
| Triangulo inguruan. Aurkitu dituenak deitu 619 48 07 01 telefono | Igeltseroa. Erreformetarako igeltseroa behar da, peoia eta | |

LEITZA ▶

Berriz Guardia Zibilak istiluak eragin ditu tabernetan

«Edanda eta bi, arma zeramatera, jendea xaxatzen aritu dira, 'Cara al sol' abestuz»

ERREDAKZIOA

Herritar batzuk salatu dute-nez, pasa den larunbat gauean Guardia Zibilak istiluak eragin zituen herriko hainbat tabernetan: lau agente ibili omen izan tabernetan taberna, «edanda eta horietako bi behinik behin armatuta, jendea probokatuz».

Biharamonean herri kros-sa izaki, gau horretan ohikoa den moduan, tabernak jendea gainezka zeuden istiluak gertatu ziren garaian. «Jendea xaxatzen» aritu omen ziren denbora guztian. «'Viva España'-ka eta 'Cara al sol'-a kantatuz, jendea lehertzeko saiakera garbia egin zuten, ia joka hasteraino. Oso jarrera probokatzailean ibili ziren erabat», azaldu dute.

Leitzako Ezker Abertzaleak salatu egin ditu «behin ere gorputz militar horrek gure herrian eragin dituen liskarrak», eta gogora ekarri du ez dela aurreneko aldia horrelakoak gertatzen direla. «denboraldi bat geldirik egon ondoren, behin eta berriro bueltatzen dira horrelako arriskuak eragitera; kale-etan eta tabernetan armatuta ibiltzen diren guardia zibilek kezka, egonezina eta beldurra eragiten dute herritarren artean», nabarmenduz.

Hala, «Guardia Zibilak Maxurrea herriari itzuli eta Leitzatik eta Euskal Herritik ere alde egin dezan» exijitu du, «indar militarrek gure herrian dauden bitartean, benetako konponbide demokratikorik ez delako izaneren», ondorioztatuz.

TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Inketa. Irakurleok gure iritzia eman dezakegu gure webean zintzilik dagoen edozein gairi buruz. Esate baterako: «AHTren lanak hasteko akordioa sinatu dute Madrilék eta Lakuak. Egitasmo honen aldeko al zara? Bai, Ez». Ikusi emaitzak eta iritziak ere.

AGENDA ▶

HITZALDIAK

Tolosa. *Bake prozesuaren atarian, EAren aportazioa.* Martin Aranbururen eskutik. 19:30ean, Alkartetxean.
Tolosa. *Norentzat dira gure hiriak?* Ramon Lopez de Lucio eta Salvador Rueda. 20:00etan, Kultur Etxean. Naturgintza Jardunaldieta.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Leitza. Plaza, M. Elbarren 36. 112.
Tolosa. Oiarreaga, J. Martin Jose Iraola, 10. 943 67 24 38.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

AGURRAK ▶

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...



ZORIONAK
 Nerea Balardi, 'Letxu'.
 Beti bezala, frexka-frexka jarraitu.



ZORIONAK, EIDER
 Zaila da ezer ospatzea maite dugun norbita joaten zaigunean. Eutsi goia!! Maite zaitugu. Amona Maite eta ebekoak. Euskal presoak eberra.



ZORIONAK, EIDER



ZORIONAK, EIDER!
 Muxu bat (Pitu). Jajaja!!



ZORIONAK, EIDER
 Zorionak, Sorgintxo!! Aurrera, aurrera Boliee... eta topa whisky-arekin!!!



ZORIONAK, EIDER
 Eguneroko borrokarekin, laster lortuko dugu Aberri Eguna Euskal Herrian libre ospatzeko eguna.



ZORIONAK, EIDER
 Zorionak, eta hurrengoan kalean? Muxu bat eta jo ta ke.



JADA MENDE LAURDEN BAT! ZORIONAK, EIDER!!!
 Zain dago ama, zain aita... eta ni ere bai. Haite. Euskal preso eta iheslariak eberra!